

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

## 656

*AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 31koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez behin-behineko langile bat izendatzen baita Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan ezarritako ahalmenez baliatuta, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorriz, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Elena Pérez Iriarte andrea izendatzea Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Erakundeekiko Harremanetarako aholkuari (kodea: 5230; dotazioa: 5.a; maila: zuzendaria).

Bigarrena.– Aholkularitzako lanpostu baten lanak egin beharko ditu, bai eta atxikita dagoen arloko zeregin espezifikoak ere.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, horretarako legez eskatutako baldintzak betetzen baditu, honako artikulua hauetan bildutako aurreikuspen guztiak edo haietako zenbait aplikatu dakizkion: goi-kargudunen lantsariei buruzko urriaren 28ko 14/1998 Legearen 3.1, 5.1 edo 5.2 artikulua.

Laugarrena.– Izendapen honek 2020ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Halaber, agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana berez azkenduko da, izendapena egin duen organoko titularrak kargua uzten duenean. Dena den, izendapena edozein momentutan indargabetu ahal izango da.

Bostgarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 31.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
SONIA PÉREZ EZQUERRA.